

Lan-orientabideko zerbitzuetan artaturiko hamar pertsonatik lauk urte erdian aurkitzen dute lana

NEZ-LSk orientabide-zerbitzu horiek lizitatuko ditu 2021erako, espezializaturiko entitateen bitartez eta 1,7 milioi euroren truke

Ostirala, 2020ko Uztailaren 10a

Lan-orientabideari esker, 2018an artaturikoen %42,8 lan-merkatuan sartu ziren sei hilabeteko epean, eta %52,7 hamabikoan. Zerbitzua sustatzeko inbertituriko euro bakoitzeko, Estatuko eta Nafarroako prestazio eta laguntzetan aurrezturiko kopurua 1,5 eta 1,9 eurokoa izan zen, hurrenez hurren. Kantitate horri soldatak jasotzearen ondoriozko etekinak gehitu behar zaizkio.

(Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian alda dezakezu hizkuntza).